

ZMA



IÑIGO RAMÍREZ DE LA PISCINA

*Bilboko Euskaraldiko dinamizatzailea
eta Zorrotza AEK euskaltegiko arduradun ohia*



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

The logo is a circular emblem. It features a grid of small dots in various colors (red, yellow, green, blue, and grey) arranged in a pattern that resembles a stylized map of the Basque Country. Below the grid, the text "EUSKARALDIA" is written in a bold, sans-serif font.

EUSKARALDIA

Auzo-etxe berriaren proiektua aurrera doa

sarrera



Zorrotzako herri aldizkaria
78. alea. 2022ko azaroa

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez
Zuriñe Vila

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramírez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko
udalaren diru-laguntza jasotzen du.
Edukia erantzule bakarra ZM
bera eta kasuan kasu, testuaren
sinatzaileak dira

Bilbao
EUSKAL
IRAKASKUNTZA

Auzoarentzat oso garrantzitsua den gaia komentatuko dugu: Auzo-etxe berri baten eraikitzea, alegia.

Gaur egun polikiroldegia ireratsita dago Auzo-etxea, Zorrotzak, orain dela denbora asko, eskatzen zituen beharrak beteko zituen ekipamendu bat eraiki arte zain gaudelako.

Urte hauetan Udalak konpondu behar zituen gaietako bat da. Auzo Elkartearentzat eta auzoko Gizarte Mugimenduarentzat ebatzi gabeko gaia da hau, eta horregatik, beti egon da gure agendan konpondu beharrekoetan. Bada, urratsak ematen ari dira hori gauzatzeko! Proiektua aurrera doa eta kokapena finkatu egin da;

beraz, baieztatu dezakegu auzoak instalazioak izango dituela beti behar izan duen mailan.

Hauxe zen gure aldarrikapen estrategikoetako bat, FEVE trenbideak eta geltokiaren lurperatzea, Sader, Euskal Errotak, eta, jakina, Punta Zorrotza konpontzeko aldarrikapen garrantzitsuekin batera.

Horregatik guztiagatik, gure konpromisoa pazientziatziaz eta nekazekin lanean jarraitzea da, guztion bizi-kalitatea hobetu arte. Ildo horretan, eta dakizuenez, lehenetsun nagusia bizikidetzat da, eta horretan ere ari gara ziurtatzen dizuegu.

Zorrotza
aurrera!



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarritz



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

*Regalos
Omega*
oparidenda

Fra Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Indarkeria matxista berriro gaitzetsi behar izan zuen auzoak

ZORROTZ MORROTZ

Taldeon Koordinakundeak deituta, doze-naka pertsona bildu ziren auzoan adingabe batek jasandako abusuak irmoki gaitzesteko eta samina agertzeko biktimari. Era berean, elkarretaratzearen ostean irakurritako komunikatu labur baten bidez, solidaritate eta elkartasuna agertu nahi izan zioten biktimari eta bere familiari bertan bildutako lagunek.

Urriaren 12an, goizaldean Bilboko Udaltzaingoak 40 urte inguruko gizonezko bat atxilotu zuen Zorrotzan alaba adingabeari sexu eraso jarraitua egitea egotzita. Eusko Jaurlaritzako Segurtsaun Sailak jakinarazitakoaren ara-

bera, atxilotuaren bikotekideak beste kontu batzuegatik jarritako salaketa ikertzeko agindua ere bazuen Ertzaintzak.

Basurtun jaioberri bat bahitu zuen emakumea Zorrotzan atxilotu zuten

Basurtuko ospitalean urriaren 19ko gauean jaioberri bat bahitu zuen emakumea Zorrotzan atxilotu zuten hurrengo goizean.

Santutxun gaua eman ostean, hurrengo goizean etxebizitza baten ate aurrean utzi zuen jaioberria 24 urteko emakume horrek, umea onik zegoela. Handik oso ordu gutxitara, Ertzaintzak atxilotu zuen Azoka parkean.



Barakaldora doan bidegorriaren irekiera atzeratu beharko da

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako N634 errepidetik igarotzen den Bilbo eta Barakaldo arteko bidegorriaren irekiera atzeratu egingo da, Bilboko Udalak atera zuen lizitazioa hutsik geratu baita. Eraikuntza-enpresa bakar batek ere ez du onartu obrarako aurreikusitako aurrekontua, eta Barakaldoko zatia oso aurreratuta dagoen arren, Bilbo aldeko obrak oraindik hasi gabe daude.

Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu duen eta bi udalek kudeatu duten proiektua urte honen amaierarako amaituta egotea aurreikusten zen. Baina gaur egun, Barakaldoranzko errepideak gidarientzako errei bat galdu duen arren, txirringulartiek ezin dute bidegorria erabili, eta badirudi hori gertatu arte hilabete batzuk igaro beharko direla oraindik.

Arrapala berri bat egingo dute Butroe kaletik Zorrotzaganara heltzeko

ZORROTZ MORROTZ

Butroe kaleko 5. zenbakitik Zorrotzaganara heltzeko sarbideko eskaileretan arrapala bat eraikiko dutela jakinarazi du Bilboko Udalak.

Lanak azaroaren 7an hasi ziren eta hiru hilabeteko epean bukatuta izatea espero da. Jarduketa honen aurrekontua 150 mila eurokoa da.



Hiru auto kaltetuta Clara Campoamor kalean uholde berri batengatik

ZORROTZ MORROTZ

Clara Campoamor kalean aparkatuta zeuden hogeit bat autotan kalteak eragin zituzten uholde larriak gertatu eta hamar hilabetera, urriaren 1ean, gauza bera gertatu zen berriro. Kasu horretan, hiru ibilgailu kaltetuta suertatu ziren.

Iaz, saneamenduko xukatze-ponpak elikatzen dituen Iberdrolaren transformazio-zentroan izandako tentsio-erorketa baten ondorioz, ponpa horiek ez zutela funtzionatu azaldu zuen Udalak. Ale hau interakoa, Udalak ez zuen azalpenik emanda uholde berri honen zergatia argitzeko.

Auzo Elkartek salatu zuen ibilgailuak eba-kuatzeko protokoloa beranduegi egin zela.

Era berean, arazo hori behingoz konpontzeko bitarteko egokiak bermatzea eskatu zuen “enagarrenez”.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



IOHLEEK Euskal Erroten jabeak salatuko ditu, “erakundeen utzikieriaz nazkatuta”

AITOR MARIN

Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarateak (IOHLEE) jakinarazi du salaketa judiziala jarriko duela Euskal Erroten eraikinaren jabeen aurka, ondare-delitua egotzita.

Eraikin horrek Eusko Jaurlaritzaren babesik handiena du 2009. urtetik. Zehazki, kultura-ondasun kalifikatua dago, monumentu kategorian sailkatuta.

IOHLEEtik azaldu dutenez, horrelako babesa duen eraikin baten jabeak hura kontserbatzera, zaintzera eta behar bezala babestera behartuta daude, haren osotasuna ziurtatzeko eta narriadura saihesteko. Hori, jakina, ez da gertatu Euskal Errotak eraikinaren kasuan, eta, beraz, salaketa jabeen aurka joango da. Hala ere, IOHLEEK Aldundiari ere aurpegira-

tu dio duela urte batzuk subsidiarioki jardun behar zuela eraikinaren etengabeko narriadura saihesteko. Kalteak nabariak dira, batez ere estalkian, azaleraren erdia baino gehiago ia hondoratuta baitago.

2021eko maiatzean, Aldundiak proiektu bat aurkezteko eskatu zien jabeek, gehienez ere sei hilabeteko epean, gutxienez eraikin nagusiaren estalkia birgaitzeko. Ohartarazten zuten zigorrak egon zitezkeela hori egin ezean, baina zigor horiek ez ziren inoiz iritsi. Ia urtebete geroago, inolako aurrerapenik ikusi gabe, eta erakundeen aldetik eraikinean modu subsidiarioan jarduteko inolako asmorik sumatzen ez dutenez, IOHLEEK auzibidera jotzea erabaki du, eraikinaren “hondatze-ara-zoari aurre egiteko borondate politiko izpirik ere” ez baitute ikusten.

Badator Euskaraldia!

IGOR GUTIÉRREZ

Azaroaren 4an Euskaraldiaren aurkezpena egin zen AEK euskaltegian. Euskal Herri osoan euskaraz komunikatzeko ariketa erraldoi horrek azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte iraungo du aurten. Alegia, aurreko aldi bakoitiaren ostean. Aurtengo leloa “Hitzez ekiteko garaia” izango da.

Saioa galdera soil batekin hasi zen: Bilbo-ko biztanleen zer ehuneko da gai euskaraz



berba egin edo ulertzeko? Horri tiraka, auzoan Euskaraldia gauzatzeko aukerak izan baditugula argi geratu zen. Segituan, Ahobizi, Belarriprest eta Ariguneeen figurak gogoratu eta horien inguruko gaizkiulertuak argitzeko parada izan genuen.

Halaber, aurten arigune izango diren auzoko saltoki, elkarte edota zerbitzuak zerrendatu genituen. Bukatzeko, Euskaraldiaren bideoklipa ikusi eta Zorrotzan Euskaraldia ospatzeko kultur egitaraua ziri-riboratu genuen.

TXOKO FEMINISTA



Basurtuko ospitalean gertatutako haur-txoaren bahiketari buruz asko hitz egin da azkeneko asteetan. Begi bistakoa dena alde batera utzita, gertakariak agerian utzi dituen beste alderdi batzuk ere azpimarratu genitzake:

Adibidez, Osakidetzako langile plantillen murrizketa eta aldakortasuna. Honek, lankideek elkar ez ezagutzea ahalbidetzen du. Beste aldetik, askok badakigu jaioberriei probak beti ere gurasoen aurrean egin behar zaizkiela, baina kasu guztietan amak eta fa-

miliak informazio hori ezagutzen duela bermatzen dute langileek?


Honen harira, osasun arloko profesionalak duten autoritatea ere azpimarratu genetzake. Pertsona ezezagunen artean, osasun langile bati baino ez genioke gure jaioberria utziko. Hortaz, gurasoei ezin zaie leporatu erizain laguntzaile gisa aurkeztu zen emakumeaz fidatu izana, osasun sistemaren erabiltzaile garen heinean, figura honenganako konfiantzan oinarritzen baikara. Eta Osakidetzak konfiantza hau babestu eta indartzeko beharra dauka, ekintzekin.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Ekintzara pasatuz

Salaketa argazki baten ordeaz, salaketa ekintza batekin gatzoz oraingoan. Izan ere, asko dira gure hiri-paisaiako kartelak, plakak, seinaleak eta abarrak, erdera hutsez errotulatuak. Eta badirudi ekintzara pasatzea erabaki duenik badela. Errotulu hau zaharren egoitzako garajearen sarreran ikusi dugu eta Euskaragara.net webgunearen sinadura darama. Webgune horretan ikusitakoaren arabera, Eusko Jaurilaritzan erregistratutako eta irabazi asmorik gabeko kultura erakundea da euskaragara.net. Bertan *"gramatika bisual interaktibo eta bitxikeria pilo topatuko duzu"*



cafe*txinbo*

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora

Lápices
LIBURVENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

// Zorrotzan nire jatorrizko herrian banengo bezala sentitzen naiz //

BLESSING UGIAGBE

Jaiotokia: Edo - Benin City. (Nigeria)

Noiztik: 2005etik.

Adina: 42 urte

Lanbidea: Erizain laguntzailea.

Duela 17 urte heldu zen Blessing gurera Nigeriatik. Senarra hemen, ezagutu, eta hiru semealabako familia osatu du. Gaur duen bizitzaz oso eskertuta dago, eta ez lukeela aldatuko dio.



TESTUA: NAROA PEÑA

Nolatan eta zergatik etorri zinen?

18 urte besterik ez nituela irten nintzen nire herrialdetik. Mundua ezagutu nahi nuen, eta bisitarien bisarekin etorri nintzen. Hasieran penintsula ez zen nire bidaiaren helmuga, Kalifornia baizik, baina nire senarra ezagutu, maitemindu ginen eta azkenean geratu nintzen. Zorrotzan bizi naiz 2005. urtetik, baina espainiar estatura 2000. urtean iritsi nintzen. Hona bizitzera etortzeko erabakia hartu nuen nire senarra bertakoa, Zorrotzakoa delako.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituetara moldatzea?

Bai eta era berean ez... Ez, nire senarraren laguntzari esker, baina bai hizkuntza, jana-ria, kultura, etab... dena zen berria niretzat! Eta gainera familia gabe egotea...

Oso ezberdina da hango bizimodua edo auzokoa bezalakoa da?

Ba pixka bat bai. Nire herrian haur askok oso gutxi dutelako, ez daukate ikasi ahal izateko

aukera. Baina nire kasua ezberdina izan zen: goizean klasera joaten nintzen, arratsaldean atletismo eta dantza tradizionalak, eta jolasen nintzen lagunekin. Alde honetatik, Zorrotzako giroa antzekoa ikusten dut. Gainera, haur guztiek aukera bat dute.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Jendea. Oso atsegina delako. Gainera, denetarik dugu: saltokiak, bankuak, gimnasioak, mota guztietako garraioak... Ez dugu Bilbo erdira joan behar ezertarako. Haurrek aisialdirako zentroa dute, parkeak... Denetarik dugu.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua hemen?

Nire egun arrunt batean, goizez haurra eskolara eramaten dut eta jarraian euskaltegira noa. Arratsaldeetan, lanera noa eta Lan Publikoko Eskaintzarako prestatzen naiz. Asteburuan, nire hiru seme-alabez gozatzen dut. Horrela da nire eguneroko bizitza: liburuak, lana eta nire seme-alabak.



“Entzun dudun hizkuntzarik zailena da euskara, baina gustukoa dut eta euskara ikasita nire seme-alabei lagundu eta uler diezaieket

Euskara ikastera animatu zara!

Bai. Orain arte entzun dudun hizkuntzarik zailena eta desberdinena izan da Nire lanak eskatzen dizkit, baina horrez gain, arreta ematen zidan, eta jakin-mina neukan. Gustuko dut hizkuntza, eta gainera, euskara ikasita nire seme-alabei lagundu eta uler diezaieket.

Nigeriara bueltatzeko aukera izan duzu?

Ez, oraindik ez naiz itzuli arazo pertsonalengatik, baina dagoeneko pentsatu dut itzul-tzea.

Zer da gehien sumatzen duzuna faltan?

Nire familia, noski, bereziki nire gurasoak. Nire herria, Oza ere bai.

Erizain laguntzailea zara. Zure herrian lanbide berdina zeneukan?

Ez, nire herrialdean erizain-laguntzailearen azken ikasturtea ikasten nenbilen. Eta ahalegin handiari esker, erizaintzako laguntzaile lana aurkitu nuen hemen. Dena den, denetarik egin dut lanean: sukalde batean, garbitzaile, saltzaile...

Eta bukatzeko, Zorrotzan betiko geratzeko asmoa duzu?

Egunero, jainkoari eskerrak ematen dizkiot Zorrotza ezagutzeko eman zidan aukeragatik. Ez nuke aldatuko. Nire herrira bisitak egitera bueltatuko nintzateke, jakina, baina oso gustura nago hemen. Bizitza ez da nongoa zaren, baizik eta non zaren zoriontsu.

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Ford

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75 Telefonoa: 94 442 44 68	TAILERRAK ETA ZERBITZUAK Zorrotza-Kastrexana errep. 75 Telefonoa: 94 442 17 12
--	---

Santer & BAR

Afariak ostiral
eta larunbatetan

Etxeke berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

Alabaren izena, borrokaren izana

Haizea eta Ekaitzen alaba jaio zenean oso argi zeukaten Eki deituko zela. Haïena ustekabea Barakaldoko erregistroan izen horrekin ezin zutela erregistratu aditu zutenean. Izan ere, Euskaltzaindiaren zerrendan Eki maskulinoa da eta bere baliokide femeninoa Ekhone litzateke.



TESTUA: AINARA GARCÍA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

Erregistroan bertan Euskaltzaindiarekin kontaktuan jartzea gomendatu zieten, eta erakunde honek Eki neskekin erabili zitekeela edo neutroa zela ziurtatzen bazuen, ez legoke arazorik. Baina Euskaltzaindiaren aldetik ez zuten inolako laguntzarik lortu. Nahiz eta 2019 urtean izen neutroen zerrenda eratu eta 50 izeni genero marka kendu, Eki ez dago zerrenda horretan eta bikote honi esandakoaren arabera, ez dago aldatzeko inolako asmorik. Azken bi urteetan ez dutela hau bezalako beste inolako eskaerarik jaso eta giza oihartzunik ez duela argudiatzen du Euskaltzaindiak.

Haizea eta Ekaitz zur eta lur geratu ziren azken urteetan erakunde honen prentsaurreko jarrera guztiz ezberdina izan dela ikusita. 2018. urtean Euskaltzaindiak estatu espainoleko Justizia Ministerioari izen genero arloan flexibilitatea eskatu zion,

baieztatuta euskara oso aproposa dela horretarako, sustantiboek genero gramatikalik ez daukatelako.

Gauzak horrela, aurkeztzen zitzaïen egoera ez zen inola ere haiek nahi zutena: gurasoek izen berri bat aukeratu behar zuten edo epaile batek inposatutako izenarekin erregistratuko zuen. Baina ez zuten etsi. Epaitegian aurkezteko Euskaltzaindiaren ziurtagiririk gabe, informazioa haien kabuz biltzeari ekin zioten (Eki Amalurren alaba bezala izandako jatorri etimologiko-mitologikoa, Indiar jatorrizko izena bezala...) Baina hala ere, ez zen nahikoa izan, eta epaileak indarrez Ekia bezala inskribatu zuen. Eki izen maskulino izanik umearen sexuaren inguruko okerrak eragin litezkeela, ez zela Eki deitutako emakumerik ezagutzen, eta gurasoek nahi zuten izenarekin antz handien zuena zela argudiatuta, epaileak erabaki hori hartu zuen bere kabuz.

Gurasoek Auzitegi Gorenean errekurtsosa jarri dute. Bide hau emozionalki guztiz nekagarria izan dela adierazi dute, izen dantzak besteak beste, administrazio ezberdinekin oztopo ugari eragin dizkielako. Azken asteetan, semearentzat Hazia aukeratutako izena erregistratzeko arazoak salatu dituzte Gasteizko beste guraso batzuek, eta honi esker egoera hauen inguruko eztabaida berriro piztu da. Auzoko bikote honek ez du galdu nahi izan haien kasua ezagutarazteko aukera, honela epaitegian aurrerapauso berriak emateko itxaropenarekin. Haien kasuan ez bezala, Euskaltzaindiak Gasteizko bikoteari aholkularitza eskeini die.

Beste zenbait komunikabidetan agertutako erreportajei esker, Eki deitutako Markinako emakume bat haiekin kontakuan jarri da. Froga ezberdinak aurkeztu ondoren Bilbo-ko erregistroan Eki bezala inskribatuta dago. Datu horiek bilduta, epaitegira bueltatu dira, baina ezezko berri bat jaso dute. Badirudi kasu ezberdinak direla, Markinako emakumearen izen-aldaketa 18 urterekin egin zelako eta "erabileragatiko aldaketa" omen da.

Beraz, jarritako errekurtsoarean ebazpen ofizialaren zain dauden bitartean, haien aukera bakarra aditu batek (Euskaltzaindia, filologoren bat, etimologian edo mitologian jakituna...) Eki neskentzat balio duela akreditatzea da, edota Indiako Ekiren izenaren inguruko dokumentu ofiziala lortzea da.

Haizeak eta Ekaitzek ez dute etsiko. Izan ere, haiek oso argi dute haien alaba Eki duela izena.



Eki deitutako Markinako emakume bat haiekin kontakuan jarri da, eta berarekin datu berriak bilduta, epaitegira bueltatu dira, baina ezezko berri bat jaso dute

STZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

IÑIGO RAMÍREZ DE LA PISCINA: Bilboko Euskaraldiko dinamizatzailea eta auzoko AEK euskaltegiko arduradun ohia

“Ariketaren kalitatea findu, eta lorpenei ikusgarritasun handiagoa eman nahi zaie aurten”



Iñigo Ramirez de la Piscina auzoko AEK euskaltegiko arduraduna izan da azken hamabost urtetan. Orain, beste kide batekin batera, Bilboko Euskaraldiko dinamizatzailea da. Euskalduntze prozesuan, gaztetan Bilbora ikastera etorri zen Zorrotzan irakasle aritzen den gasteiztar honekin, gurean izandako bizipenez, eta azaroaren 18tik aurrera gauzatuko dugun Euskaraldiaren inguruan berba egin dugu



“ Euskaraldia ez da nahikoa izango hizkuntza ohiturak aldatzeko, baina egun horietan egingo diren deskubrimenduak eta aliantzak urtean zehar irautea da gakoa

Azken urteetan AEK euskaltegiko ardura-duna izateagatik ezagutzen zaitugu. Horretarako heldu zinen auzora...

Hamabost urte badira, oso azkar joan zaizkidanak. Hasieratik asmoa zen ahal bezain pronto auzoko errelebo bati pasatzea ardura hori. Ez naiz Zorrotzan bizi, eta asteburuetan eta oporretan kanpoan egoteak euskaltegiak bete beharko lukeen espazioa trabatu egiten duela uste dut. Aurten errelebo hori lanean hasi da, eta pozez zorutzen nago, esku onetan ikusten dudalako euskaltegia.

Zein da zure historia pertsonala euskarrekin? Erdara nagusia zen zure eremuan.

Ni gasteiztarra naiz. Familian inork ez zuen euskaraz egiten jaio nintzenean. Kuadrillan ere ez. A eremuan gaztelaniaz ematen zizkiguten bi klase orduak ziren nire harreman guztia euskarekiko, hamalau urte nituenean udaleku batzuetara joan nintzen arte. Bertan, beste leku batzuetako ume euskaldun batzuk ezagutu nituen. Haiek egiten zuten hizkuntza, eta haien bizitzarekiko jarrera gehiago gustatu zitzaidan erdaldunona baino, eta haiekin eman nuen udalekua. Eta hama-sei urte betetzearekin batera euskaltegiratu nintzen eta azkar batean euskaldundu. Gero Gasteizetik atera nintzen euskalduntze pro-

zesuan jarraitzeko, eta Bilbora etorri nintzen ikastera. Karrera noski euskaraz hautatu nuen, sare berri bat osatu nuen hemen, eta karrera amaitu baino lehen, AEKn hasi nintzen lanean.

Euskaltegiko arduraduna izateko heldu zinenean, nola topatu zenuen euskararen erabilera auzoan?

AEK kidea izanda, oso baldintzatuta nago. Zoazen leku horretara beti gabezia sumatzen duzu lehenik. Alde horretatik, Zorrotzan zer egin bazegoela iruditu zitzaidan, baina potentzial handiarekin, eta horrek motibatu egin ninduen.

Hobera egin duela esango zenuke?

Ingurukoei entzundakoagatik baietz esango nuke, euskara gehiago entzuten delako kalean. Horrekin geratzen naiz, baina hain hain kritikoa izanda, ez nuke esaten jakingo. Baietz pentsatu nahi nuke, noski.

Orain, Bilboko Euskaraldiaren dinamizatzaile lanetan zabilta. Rola aukeratuta duzu jada, ezta?

Bai, noski. Aurrekoan aukeratu nuen bera, eta Belarriprest izango naiz. Lehenbiziko Euskaraldian Ahobizi izan nintzen, eta azkenean

“ Askok pentsatzen dute euskara ondo dakien bat Ahobizi dela eta hain ondo ez dakiena Belarriprest dela. Ez da hori, konpromisoan datza. Belarriprest batek hamabost egun hauetan egin dezake euskara hutsean, eta hori da nire asmoa

rolari eutsi nion baina egoera gogorrek bizi behar izan nituen. Adibidez, amarekin euskaraz egitea. Irakaslea zen, eta ez zuen inoiz ikasi nahi izan, baina jubilatutik aurretik derriortu zuten nolabait ikastera, eta ulertzeko beste behintzat ikasi zuen. Ahobizi izanda, amarekin euskaraz egin behar nuen... Eta hola hasi ginen: neu berari euskaraz, berak niri erdaraz, hasieran haserre gainera. Azkenean irauin, baina bigarrenengo lasaia jokatzeko pentsatu nuen eta horrelako salbuespenetarako tartea uztea. Eta badago bigarren arrazoi bat: jende askok pentsatzen du euskara ondo dakien bat Ahobizi dela eta hain ondo ez dakiena Belarriprest dela. Eta ez da hori, konpromisoan datza aldea. Belarriprest batek hamabost egun hauek euskara hutsean egin ditzake, eta hori da nire asmoa. Belarriprest izanda, saiatuko naiz hamabost egun hauetan Ahobizi rolari eusten.

Batek baino gehiagok ezuste handia hartuko du Belarriprest txaparekin zu ikustean. Diozunaren arabera, Belarriprest rolak izagurritzko garrantzia dauka, ezta?

Bai, itzela. Gutxiago ez behintzat. Ahobizi ala Belarriprest izan nahi duzun erabaki aurretik, autodiagnostikoa egitea gomendatzen dugu. Hamabost egun haietan, norekin eta nolako egoeretan egongo zaren, eta benetan eutsiko diozun ala ez hausnartzea. Eta ikusten baduzu agian ez diozula eutsiko, orduan ez izan Ahobizi eta izan Belarriprest. Ez da batere gutxiago. Ez da bakarrik nik ulertzen dizudala adieraztea, baizik eta espresuki eskatzen dizudala, mesedez, euskaraz egiteko.

Balizko elebidun elkarrizketek izugarritzko garrantzia dute beraz.

Oso handia, bai. Hori da Ahobiziek haien lepoan hartu behar duten kargetako bat. Nahiz eta besteak erdaraz egin, euskarari eutsi behar diote. Hori da nire ustez Ahobizien konpromisorik latzena. Lehen bietako batek euskaraz egiten ez bazuen, biok erdarara jotzen genuen. Bada tarteko bat, elkar ulertzen badugu, eta hori normalizatzeraz gatz.

Hirugarren Euskaraldia dator. Hasierako ezustea eta berritasuna galduta, hasieran lortutako arrakastari eustea posible al da?

Ez dut uste. Lehenengo edizio hartan ilusioa topera zegoen. Ordura arte ikusi gabeko ariketa sozial berria zen. Bigarrenengo aldiz, kontrara gertatu zen. Pandemiak baldintzatuta zeharo apaldu zen. Hirugarren honetan ez dut espero lehenengoan bezain beste, ezta bigarrenengo bezain gutxi.

Lehenengo bezain beharrezkoa da?

Bai, bada. Hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzea da Euskaraldiaren helburua. Horretarako hamabost egun horiek ez dira nahikoak izaten, baina egun horietan egiten diren deskubrimenduek eta aliantzek urtean zehar irautea da gakoa.

Berritasunik ba al dakar aurtengo Euskaraldiak?

Berritasun gutxi. Sinpletzera jo dugu. Kalitatearen lehenetsiko dugu kantitatearen gainetik. Batez ere, Ahobizien figuran, ez dugu asko bilatuko baizik eta rola ondo betetzea, aurrekoetan sumatu genuelako jende askok ez zuela rola behar bezala bete. Ariguneei berdin jokatzeko nahiko genuke. Aurtengo gomendioa zera da: zalantzaren artean, izan Belarriprest. Eta zalantzaren artean, ez izan Arigune, baina jantzi txapa moztadoren horren atzean.

Auzoko euskaldunak aktibatze baliogarri izan da edo izango da Euskaraldia? Zer uste duzu?

Baietz uste dut. Auzoetako euskara batzordeak edo euskararen inguruko elkarteak batzeko eta zerbait komunean egiteko baliogarria izango delakoan nago. Gero eta dispartsoago bizi garen honetan, Euskaraldia, aitzakia bat izan daiteke kohesiorako.

// Euskara ikasteko biderik onena murgiltzea da, eta gurean ere badaude horretarako aukerak //

Oraindik ere irakaslea zaren aldetik, euskara ikasteko edo hobetzeko gomendiorik?

Hizkuntza bat ikasteko modurik onena murgiltzea da. Egia da Zorrotzan ez dela euskara asko egiten, baina aukerak egon badaude: egin konplizeak. Saiatu, zure egoera berean, euskara ikasi nahi duten pertsonak bilatzen, eta haiekin euskaraz egin... Pixka bat txispatzeak ere laguntzen duela esango nuke. Eta ligatzeak, zeharo. Hori modurik zuzenena da, kar, kar.

Eta, euskaraz hobetzeko, zein liburu gomendatuko zenuke?

Norberak gustuko duen idazle bat hautatzea gomendatuko nuke, eta idazle horrekin jarraitzea. Gustuko izan baduzu liburu bat, idazle

horrekin jarraitzea gomendatzen dut.

Filmik edo telesaiorik?

Oso klasikoa naiz. Baina kontrako zerbait esatearren, ikusi beharreko hurrengo filma "Irati" dela esango dut. Hala ere, zalantza daukat zelan ikusiko dugun. Euskarazko filma denez, euskaraz grabatutakoa, zinemetan nola ikusiko dugu? Azpigituluak jarriko dizkiote? Bikoiztutako bertsioa egon daiteke, baina euskara hutsezko bertsiorik izango dugu zinemetan erdara hutsezko bertsioak dauden bezala?



Hainbat Arigune izango dira gurean...

Bai, hamabi. Aurrekoan izan ez ziren lau izango dira aurtun. Pozik egoteko moduan.

Izandako lorpenak ikusgarriak al dira auzoan?

Bai, aurtun lorpenei ikusgarritasuna eman nahi diegu, Aurreko edizioetan lortutakoaren hausnarketa egin, oraingorako erronkak markatu, eta ondoren lortutakoaz gozatu eta harro egoteko edizioa izatea espero dugu. Edozein lorpen, txikia bada ere, ospatu. Goatzeko Euskaraldia izan behar du honek.

Posible al da Zorrotzan euskaraz bizitzea?

Guztiz ez. Eremua murriztuta lor dezakezu, jakina! Hiru lagun euskaldun horiekin besterik ez bazaude, eta bizpahiru taberna konkretu horietatik ateratzen ez bazara, agian bai. Baina Zorrotzak badauka bestelako bizitasun bat, eta horrela jokatuta asko galduko zenuke auzoan gertatzen denaz euskaraz soilik eginez. Gaur gaurkoz, esango nuke ez dela posible.

Izango al da noizbait?

Auskalo. Baietz espero dut!

LASTER 

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDI: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net
MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkarriak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

100 urte



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



AGENDA

Azaroak 18 - abenduak 2

EUSKARALDIA

Azaroak 18 ostirala

19:30 Askabiden.

Euskaraldia hasiera jaia

Kontzertua: **AZERIA.** + luntxa.

Azaroak 25 ostirala

19:30 Askabiden.

Bakarriketa: **BARRY MANLEY.**

Azaroak 27 igandea

11:15 Kiroldegian.

ZORROTZA F.C. - SALESIANOS

Atsedendian, "tripakiak bizkaitar erara

agertzen diren guztientzat.

Partidu bukaera, argazki erraldoia klubeko jokalariei eta zale guztiekin

17:30 Auzokan.

Kafea eta mahai jolasak

Abenduak 2 ostirala

17:30 Auzokan.

Euskal Dantzak Tailerra - Gaztekluba Bilbo

Abenduak 3 larunbata

12:00 Umeentzako animazio interaktiboa

EGUN ON SIKIERA

12:30 10 de Fray Juan tabernan.

Lehen berba euskaraz Talo banaketa.

12:30 10 de Fray Juan tabernan hasita.

ZORROTZA KANTARI.

18:30 Askabiden.

Magia ikuskizuna: **IMANOL ITUIÑO.**

19:30 Madness tabernan hasita.

Trikipoteoa.

21:00 Arsenio jatetxea.

Bertso afaria: **OIHANA ARANA eta ANDER ANAKABE.**

Abenduak 16, ostirala

20:30 Gaztetxean.

Kontzertua: **KAOS URBANO + MOZKOR ALAIK.**

Sarrera: 10 / 13 euro

Abenduak 17, larunbata

20:00 Gaztetxean.

Kontzertua: **THE GUILTY BRIGADE + SOFOKAOS.**

Sarrera: 10 / 12 euro

Abenduak 23, ostirala

20:00 Gaztetxean.

Dantza: **MEMORIA - Work in Progress**

Sarrera: 10 / 12 euro



Etxe berdea

Andoni Agirrezabala Izagirre

Erein. 2022. 144 orrialde.



2005eko urriaren 29an gertatutakoa tragikoa izan zen. Hil-dakoak, tartean. Poliziak herriko bazterrak nahastu zituen. Kasua ere itxi zuen seguitan, baina sakon aztertu gabe. Azalekoari eutsi zion, begien bistakoa zirudien horri, eta alde egin zuen.

Ez, ordea, aguazilak. Zorigaiztoko gertaera uneoro zuen ate joka. Susmo txarra hartuta, bere kabuz abiatu zuen ikerketa. Amaitu zuenean, karpeta batean gorde zituen dokumentuak, udaletxeko bere mahaiko kaxoian. Bertan topatu berri dituzu, irakurle, bizilagunen testigantza batzuk, aguazilarenak ere barne. Herriko Etxe Berdean gertatu zena argitu al zuen? Etazuk, zer egingo duzu informazio horrekin?



BAZKA "Basoaren ilunean dantzan"

(Filferro Records / Stop Control Records,) 2022



Sorkuntza berriko proiektua dugu honako hau, baina partaideak eskarmen-tu handiko musikariak ditugu euskal musikaren eszenan. Azken urteetan taldekide gehienak Estricalla izenez aritu izan dira, baina aurretik

Berri Txarrak, Dut eta Kuraia talde esanguratsuetan ere ibilitakoak. Emaizta euren ibilbide musikaletan jorratutako estiloen nahasketa dela esan dezakegu, non pasa den mendeko zaporea ere dastatu daitekeen. Fer Apoaren ahots karakteristikoak eta Galder Izagirre baterijole handiaren erritmo basatiak garai zaharrak dakarzkigute burura. Dena den, Erik, Hodei eta Txomin gainontzeko taldekideak ez dira atzean gelditzen, beraien lankidetzaz ezinbestekoa suertatu da ekuazioa ebazteko orduan.

Tolosako Bonberenea estudioan grabatu eta nahastu dituzte lan hau osatzen duten 9 abestiak, Karlos Osinaga "Txap"en gidaritzapean. Masterizazioa burutzeko, aldiz, Ultramarinos Costa Brava estudioko Santi Garcia ekoizle famatuak azken ikutua eman dio. Tandem ederra, benetan. Azaleko irudi harrigarria Paul Vos margolariaren koadro batean oinarrituta dago baina gainontzeko diseinua taldearen ardura izan da. Zuzeneko aurkezpenei dagokienez, jadanik batzuk eginak dituzte eta datorren abenduaren 1ean Bilboko Kafe Antzokian arituko dira.

IBAI BARRIOS

Patata tortilla

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 euro.

Osagaiak: Olioia, patatak, arrautzak, gatzia, urdaiazpikoa, gazta eta gazta birrindua.

Hasteko, patatak zuritu eta txikitu. Bota olio asko zartagin handi batean. Olioia bero dagoenean, bota patatak. Frijitu 15 minutuz. Jarraian, kendu olioia eta gorde patatak plater batean.

Arrautzak irabiatu eta gero, gehitu patatak eta gatz pixka bat. Bitartean, jarri olio pixka bat zartaginean eta berotu. Bota nahasketaren erdia. Gainean jarri gazta eta urdaiazpiko xerra batzuk, eta horren gainean nahasketaren beste erdia.



Frijitu 3 minutuz. Ondoren, plater handi batekin buelta eman eta beste 3 minutuz utzi egiten.

Bukatzeko, kendu sutatik eta plater baten gainean jarri eta moztu zerbitzatzeko.

VENECIA TABERNA

Ordutegia:

Goizeko 6etatik gauko 11k arte zabalik egunero, igandeetan izan ezik.

Abaro estrata, 10.

Telefonoa: 94 482 06 25



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



ESKaintza
PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean +4,00 esferako eta
~2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarrairetaluxury
OPTICA

Lantegien historia gaur egun (zintzoak jolastu gure ba dogu eta datuekaz) zaila bihurtzen doskuenez, ibilbide osasuntxuekaz tartekatuko dogu, etorkizunean hartuko dogun bidea izanik. Hasiko gara poliki poliki, inguruko basoetatik (mendian bizi garenez geu basora goaz, eta ez mendira) bideak esagutuko doguz, lehenago gorputze ohituten eta gero paseo luzeagoak egiten animatuz. Espero dot zeuen gustukoa izatea.



Sasiburu mendilerroa

Mendilerro hau auzotik egingo dogu eta gorputza prestatzeko balioko dosku. Egin ahako dogu Gurutzetara igotzen, Burtzeñatik gora, eta basatxu gaindituta, Portura helduz, aukera bi, artez gorantza Largatxaren larren albotik pistara eta gero gorantza zuzenean edo Agate deunaren baselizara heldu eta lepora basobidetik.

MANU COBO

Beste bide bat dekogu Kastrexanatik sorgin zubie igarota (edo Etxebarriako zubi eskegitik Agate deunaren eleizara, Zubiletan, baie kontuten hartu zer gertatu zan duela gitxi Indian....), eta errepidetik gora (Arratiako txekorra, txikerra baie gogorra....) eta gero esan doguzan bideetatik.

Igoera erdien erromatarren galtzada dekogu ikusgai eta markata, handik igotzean gogoratzen dosta beti zabaltzen zoskuezala bideak eta handik sartu jakuzan gero beste inbasio kaltegarriek, latin, eleiza.... Geure hizkuntza zaharraren eta geure ohituren aurka danok....

Eta aukera leunena, pistatik joan Ganeroi-tzerarte ta itzulia Sasiburutik.

Arroletza (454 m)

Sasiburuko mendilerro txikiaren gailurra da, Eretza menditik (871 m) ateratzen den garaiera-muinoa, eta, beraz, mendigune zabalago baten barruan sar daiteke, Triano/Grumeran mendigunean, hain zuzen ere. Sasiburu mendilerroa Gurutzetan (21 m) hasten da, Barakaldon, eta Zorrotzan (17 m), Kadagua ibaiaren ezker aldean. Gailurra ekialderantz luzatzen da, Kadagua eta Galindo ibaien arroak bereiziz, eta Kastrexana, Zaramillo, Alonsotegi, Mezpelerreka (Elregato) eta abar menderatzen dauz. Sasiburuko mendilerroa Salgeta lepoan amaitzen da.



Tellitu (462 m)

Sasiburu mendilerroaren gailurra, Sasiburu (459 m) eta Arroletza (454 m) gailurren artean, iparraldean. Horietako edozeinetatik igotzeko minutu gutxi behar dira, 420 metrotik gorako garaiera daben lepo txikiek bereizten baitdabaz. Sasiburu mendilerroa Kadagua ibaiaren ezkerreko ertzean dau, "Montes de Triano" edo Grumeran bezalako mendigune handiago baten aurrerapen gisa. Azken hori meatzaritzak hainbeste zigortu dau, gaur egun Kadaguako harana den bezala, presio industrialak eraginda. Hala ere, deigarria da ondino irautea...



Sasiburu (459 m)

Sasiburu mendilerroaren gailurra, Triano edo Grumeran mendien multzo menditsuaren zati dana. Gailur hau mendilerroko gailurrik garaiena da, nahiz eta Arroletza (455 m) mendi tradizio zabalagoa dauen, Euskal Herriko tontorren katalogoan

sartu baita. Kota horrek mendilerro osoari ematen dautso izena, eta igoera interesgarria da. Hegoaldean dagoen harri hautsiari Ezpelarri deitzen jake (362 m). Mendikate horrek Kadagua ibaiaren azken zatia ezkerreko mugatzen dau, Barakaldoko Nerbioi ibaian sartu aurretik.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZA BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Induljentziak ala sabotajea

Berotze globalaren aurkako neurrien bat hartzen ari zara? Plastikozko poltsen erabilera murrizteko poltsa ekologikorik erosi duzu?

Beti daramazu kintin-plora bat PET ontzietan edaririk ez erosteko? Zure auto zaharra hibrido baten ordeztatu duzu?

Argi eta garbi esango dizut: asmo oneko jokabide horiekin bakarrik ez zara ezertara iritsiko; are gehiago, kaltegarriak ere izan litezke.

Zergatik? Izan ere, uste dugu klima-aldaketaren aurkako neurriak hartzen ari garela, eta ez dugu behin betiko urratsa emango askoz ausartago jokatzeko, hori baita benetan behar dena. «Kontsumo-jokabide» batzuen bidez, zeinek «induljentzia» gisa funtzionatzen baitute, (kontzientzia-zimikoak aurrezten baitizkigute eta lasai bizitzeko aukera ematen baitigute benetako arazoei bizkarra emanez), erraz erortzen gara kapitalaren jabeek praktikatzan duten ekoturiketaren tranpan (greenshumping).”

Horrela hasten da Kohei Saitoren liburu gomendagarria, “Kapitala Antropozenoaren aroan”.



TXETXU ROJO

“ Uste dugu
klima-aldaketaren
aurkako neurriak
hartzen ari garela,
eta ez dugu behin
betiko urratsa emango
askoz ausartago
jokatzeko, hori baita
benetan behar dena.
«Kontsumo-jokabide»
batzuen bidez, zeinek
«induljentzia» gisa
funtzionatzen baitute
...
Bizitzeko eskubidea
arriskuan dagoen
honetan, berehala
gelditu behar dugu
erregai fosilen
erauzketa, gutxi
batzuk aberasten
jarraitzeko balio
duena

Orduan, zer egin dezakegu? Ezintasunak geldiarazi egiten gaitu. Etsipenak bultzatzen gaitu “carpe diem” era. Ala ez?

Herman Dalyk (duela gutxi hil da; “Ekonomia, ekologia, etika” liburuaren egilea) lagundu gaitzake: “Etsipenaren aurkako antidotoa ez da itxaropena, ekintza baizik, eta, beraz, gure lana ez da itxaropena non dagoen aurkitzea, ekintza identifikatzea baizik.”

Baina... zer ekintza? Beste liburu gomendagarri batek (“Nola dinamitatu oliobide bat”, Andreas Malm-ena) argia bota dezake, nahiz eta argi deseroso bat izan:

“Klima-aldaketa errealtate apelaezina da. Hala ere, eskaera, protesta eta manifestazio kanpainen hamarkaden ondoren, industria fosilak gora egiten jarraitzen du, tenperaturak, itsasoen maila eta muturreko beste fenomeno klimatiko batzuek bezala. Dena jokatzeko ari bagara, gure bizitza eta etorkizuna, zergatik ez gara joan protesta baketsutik harago?”

Bizitzeko eskubidea arriskuan dagoen honetan, berehala gelditu behar dugu erregai fosilen erauzketa, gutxi batzuk aberasten jarraitzeko balio duena. Azken batean, oliobide batzuk dinamitatzen hasi behar dugu.”



Eskua eta hizkuntza

Azaroak 14 ditu hau idazten ari naizela eta, ezinbestean, eguneko albiste nagusia aipatu behar. Tira, adjektiboa ondo erabilia dagoen ez dakit; bizi garen lurralde honetan zeresana eman du, behintzat. Halaxe jaso dute egunkari gehientsuenek: Aranzadi elkarteak esku itxurako pieza bat topatu du, K.a. 1. mendekoa, lau lerroko euskarazko (?) idazkunea duena. Idazkunean hitz bakarra deszifratu dute oraingoz. Ez da edozelako hitza, gaur egungo euskararekin bete-betean lotutakoa baizik, lehenengo begiratuan ulertzeko modukoa: zorioneku -bada ondarrutarren txistea egin duenik, bego, beraz, horretan-. Joakin Gorrotxategiren arabera, eta askoren poz irrintziak gorabehera, ezin dei dakioke euskara inkripzioko hizkuntzari. Izatekotan ere, baskonikoa litzateke izendapen egokiagoa, hizkuntzalariaren aburuz. Euskararen arbaso bati buruz ariko ginatke, edozein kasutan; K.a 1. mendeko Nafarroan euskaraz (edo bere arbaso batez) mintzatzen zela frogatzen du Irulegiko eskuak, baita komunitate horrek idazten bazekiela ere. Lehenengoa baino harriarriagoa da bigarrenkoa, orain arte uste baitzen antzinako euskal jendea herri analfabetoa zirela.



ASIER URKIZA

“ Ez dira gutxi izan Aranzadi elkartearen aurkikuntza euskararen egoeraz aritzeko baliatu direnak: Nafarroan euskararen hedapena zilegi dela diote... Ez da gezurra. Besterik da baieztapen hori eraginkorra ote den horretarako

Albiste leitu, xehetasunen eta iruzkinen bila atari digitalak arakatu eta pentsakor jarri naiz. Sare sozialetan ez dira gutxi izan aurkikuntza gaur egungo euskararen egoeraz aritzeko baliatu dutenak. Laburbilduz, Nafarroan euskararen hedapena zilegi dela diote, Lingua Navarroruma nafarron berezko hizkuntza izanik. Ez da gezurra. Besterik da baieztapen hori eraginkorra ote den horretarako, hots, egungo nafarren -demagun, tuterarren- hizkuntza eskubideen alde egiteko. Funtsean ados egonagatik, auzi nazionallean bezala hizkuntzare-

nean ere ez dakit ados al nagoen faktore historikoen ildo diskurtsiboarekin. Esan nahi baita, behin izan zen herri bat euskaraz mintzo zena, behin izan zen euskaldunon estatu (?) bat, ondorioz berreskuratzea baino ez zaigu gertatzen, gurea zena atzera ere geureganatzea, aspaldiko Arkadia zorionsu eta oparo hartara itzultzeko. Desatrea ziurtatuta dago, nire irudiko; berekin dakartzan oihartzunak ez dira bereziki askatzaileak, gainera.

Nafar estatua ikur gisa aldarrikatzen duten proposamenekin zurtuta gelditu ohi naiz; izan politikoak, izan kultura arlokoak. Estrategia-mailan antzuak (masa erakartzeko ezgaiak) eta iruditeria aldetik zaharkituak iruditzen zaizkit. Askoz hobe deritzot eskubide-berdintasunean ardaztutako diskurtsoa eratzeari, zeina euskal komunitateari zor zaizkion hizkuntz-eskubideen inguruan mintzo baita. Hizkuntz-ekologia bezalako kontzeptuak benetan interesgarriak dira eta ezin hobeto uztar litezke egun hain boladan dauden bestelako ekologia batzuekin. Joxe Azurmen-diri jarraiki, euskaldunok ez gaitu batzen gure arbasoen identitateak, ezta ustez garen esentzia batek ere. Batik bat izan nahiak batzen gaitu, euskal komunitatearen alde egiteak. Hizkuntza baten alde egitearekin zerikusia du horrek. Elkarri eskua baino -eskua ere bai, ze demon-tre-, elkarri hizkuntza emateak, zoria opatzeak.



Uxue

Bai, noski! Nire herrian betidanik euskaraz hitz egin dut eta nire lehenengo hitza beti ere euskaraz jarraitzen du izaten



Mikel

Bai, Ahobizi izango naiz. Saiatuko naiz ohitura aldatu eta lehenengo hitza euskaraz egiten.

IRATZE PÉREZ



Euskaraldia.

Parte hartuko duzu?



Irene

Nahiz eta egunerokotasunean euskara gutxi erabiltzen dudana, saiatu behar naiz gehiago erabiltzen, nire alabak ikusi eta adibide gisa har nazan



Sara

Lanean ohitura aldatzeko baliogarria izatea espero dut, eremu pribatuan gehiago kostatzen zaidalako euskaraz egitea.



David

Nik Belarriprest rola hartuko dut. Alaba eta semearekin baino ez naiz ausartzen euskaraz hitz egiten.

ehbildu

egiteko
beste
modu bat



ASKABIDE
kultur elkarte
zorrotza



DARABILBO

Tailerrak/bisita gidatuak/joskintza/
kirol-ekintzak/sukaldaritza/
ikuskizunak/lehiaketak...

B
Bilbao

BILBON AISIALDIA EUSKARAZ



www.darabilbo.eus
darabilbo@bilbao.eus
607 530 132



iKasi
Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



Euzko Lehen Heziketa Eremua
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



Euzko Lehen Heziketa Eremua
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



Euzko Lehen Heziketa Eremua
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.jeszorrotzabhi.hezkuntza.net



Kultur Gabonak

2022/2023

AZAROAREN 24tik URTARRILAREN 4ra
Del 24 de NOVIEMBRE al 4 de ENERO

KULTUR PROGRAMAZIOA AUZOETAN
PROGRAMACIÓN CULTURAL EN BARRIOS



#BilbaoGabonak



www.bilbaokultura.eus

KULTURA
BARRUTIK



Bilbao